



Ekipoa	Oxidazio termiko birsortzailea
Kodea	B-2010
Ingurumen-hobekuntza	KOL emisioak murrizten ditu.
Honetan datza:	<p>Hondar-gasen korrante bateko konposatu erregaiak (KOL-ak) oxidatzeko erabiltzen da. Horretarako, airea edo oxigenoa dagoen leku batean gas-korrante bat berotzen da, bere sutze-puntutik gorako tenperaturan, eta tenperatura handiari eusten zaio errekontza hori amaitzeko behar den denbora guztian. Horrenbestez, karbono dioxidoa eta ura lortzen dira. Denborak, tenperaturak eta oxigeno-eskuragarritasunak eragina dute errekontza-prozesuaren tasan eta efikazian. Faktore horien bidez, KOLak oxidatzeko sistemak diseinatzeko oinarritzko parametroak lortzen dira.</p> <p>Halaber, oxidazio termiko birsortzaileak irteera-gasen beroa berreskuratzen du. Hortaz, energia-eraginkortasun handiagoa du, oxidazio termiko ez birsortzaileek baino. Ezaugarri hauek ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gas-korrantea instalazioan sartzen da eta birsorkuntza-ganbera batera igarotzen da. - Ondoren, gas-korrantea matrize zeramiko termotrukatzaille batetik igarotzen da. Hartara, gasaren tenperatura igotzen da, ia oxidaziorako behar den mailara. - Gero, gas-korrantea errekontza-ganberan sartzen da. Ganbera hori 800 °C inguruko tenperaturan mantentzen da, erregailu eta berogailu elektrikoek bidez (gas-korrantearen tenperatura-igoerarekin energia-kontsumoa murriztu egiten da).
Zein sektoretan aplikatu daitekeen	<ul style="list-style-type: none"> - Gas-korrantea errekontza-ganberatik ateratzen da beste matrize termotrukatzaille baten bidez. Matrize horrek bere energia termikoa transferitzen du, eta berriz erabiltzen da hurrengo zikloa berotzeko. - Amaitzeko, gas garbia daraman korrantea deskargatzen da. <p>Oxidatzaile termiko birsortzaile baten osagai nagusiak hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Matrize zeramiko termotrukatzailleak. - Errekuntza-ganbera. - Erregailu edo berogailu elektrikoak. - Haizagailua.



Kanpoan geratzen dira teknologia hori TEO gisa aplikatu beharra daukaten IPPC jarduerak, 117/2003 Errege Dekretua urtarrilaren 31ekoa bete behar dutenak, indarrean dagoen legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatuko dutenak, eta dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzea eskatu zaienak.

Kanpoan geratzen dira 500.000 euro baino gehiagoko kostua duten instalazio guztiak.

Teknika hori KOLak eta bestelako osagai erregaiak deuseztatzeko erabiltzen da (usaintsuak...) sektore askotan, adibidez, honakoetan:

- Ibilgailu motordunen fabrikazioa (NACE 29).
- Haragia edo haragizko produktuak ekoiztea, prozesatzea eta kontserbatzea (NACE 10.1).
- Arraina eta arrainkiak prozesatzea eta kontserbatzea (NACE 10.2).
- Landare- nahiz animalia-gantz eta -olioen fabrikazioa (NACE 10.4).
- Esnekien fabrikazioa (NACE 10.5).
- Landare-olioak erauztea eta gantzak eta olioak fintzea (NACE 10.4).
- Bestelako elikagai-produktuen fabrikazioa (NACE 10.8).
- Edarien fabrikazioa (NACE 11).
- Egurrezko produktuen fabrikazioa (NACE 16), adibidez, lehorketa, egurrezko estaldurak, laminatuak.
- Oinetakoen fabrikazioa (NACE 15).
- Inprentak (NACE 18).
- Produktu kimikoen fabrikazioa (bernizak, tintak eta itsasgarriak) (NACE 20.3).
- Plastikozko (eta kautxuzko) produktuen fabrikazioa (NACE 22).
- Elementu zeramikoen fabrikazioa (adreiluak, lauzak eta bestelakoak) (NACE 23.3).
- Produktu metaliko gainestalien fabrikazioa, makineria eta ekipoak barne (NACE 25, 26, 27 eta 28). Adibidez, estaldurak.
- Gainazalen tratamendua (NACE 25.6).
- Lehorreko garbiketa (NACE 81.29).